

JUDIMENDIKO AUZO KROSA

ARAUDIA

Ekintzaren deskribapena: 2025eko ekainaren 23an, astelehena, arratsaldeko 17:30etan Judimendiko auzo krosa egingo dugu. Kros hau herrikoia eta ez-lehiakorra izango da. Krosa 5km-koa izango da eta ibilbideak auzoan zehar 2,5km inguruko zirkuitu bati bi buelta emango dizkio. Irteera eta helmuga gunea Judimendiko Parkean izango da.

a) 2025/06/23an izango da lasterketa, arratsaldeko 17:30etan hasita. Ekimen honetan edonork parte hartu dezake, aldez aurretik izena emanda. 16 urtetik beherakoek krosean izena eman ahalko dute legezko tutorearen baimen bat sinatuta.

b) Lasterketak 5 kilometro ditu, Judimendiko kaleetan barrena. Irteera eta iritsiera: Judimendiko Parkean.

c) Parte-hartzaileen erregistroa egiteko; hau da, korrikalariak izena emateko sistema online eta aurrez aurrekoa izango da. Online <https://www.kirolprobak.com/> web orrian eta aurrez aurrekoa Judimendiko Auzo Elkartean, asteartero, 19:00-21:00. 5€ ordaindu beharko dira. Probaren egunean bertan, 16:00-17:00 bitartean eman ahal izango da izena Judimendiko Parkean bertan, 10€-ren truke.

d) Dorsalak ekainaren 23an jasoko dira, astelehena, 16:00-17:15 Judimendiko Parkean bertan. Dorsala ikusteko moduko leku batean eraman beharko da.

e) Lasterketaren izaera herritarra dela eta, ez da sailkapen ofizialik edota saririk egongo. Horren ordez, parte-hartzaileen artean zozketa ezberdinak egongo dira.

f) Antolakuntzak ez ditu bere gain hartzen lasterketako partaideek eragin ditzakeen kalteak.

g) Antolatzaileek mediku zerbitzua jarriko dute parte hartzaileentzat.

h) Parte hartzaileei edari freskagarria emango zaie lasterketaren amaieran.

i) Lasterketan parte hartzeak arautegi hau eta antolatzaileen zein udaltzaingoaren irizpideak onartzea dakar.